JEAN BARBIER

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri

(Josu Jauna eta Kepa Deuna)

(Laburdieraz)

15.—DAFAILA, ASTOA ETA MAKILA

Bertz'orduz, etche batean, baziren hiru seme.

Egun batez, zahafenak efaiten dio bere amari: "Ama, egitzu lastef opilak, joan nadin gero fortuna egitera".

Amak egiten ditu opilak, eta semea abiatzen da bidez-bide. Zoalarik, ur-bazter batean kausitzen ditu Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak oihuz efaiten dio: "Efak, muthikoa, saritan truk, eremanen gaituk bertze aldera?" —"Baietz segurki!" Eta gure muthikoak ereman zituen beraz bertze aldera.

Jesus Jaunak, orduan, saritzat eman zion "dafail" bat, efanez: "To, hartzak dafail hau. Gosetzen edo egafitzen haizen aldi guziez, aski dukek efaitea: "Dafaila, heda hadi!", eta dafail hofen gainean, izanen duk, berehala, behar dukan jateko edo edateko guzia".

Gure muthikoa, fortuna jada egina zuela loriatua, abiatzen da kuchean etche alde. Joan, joan, bethi joan, afatsean heltzen da ostatu batetara, eta oherakoan, dafail baliosa emaiten diote altchatzera ostatuko jendeeri, efanez: "Dafail huni ez gero efan, othoi: "Dafaila, heda hadi!" —"Ezetz, segurki!"

Bainan muthikoa ohera joan orduko, ostalarek efan zioten dafailari: "Dafaila, heda hadi!" Eta, berehala, dafailaren gainean, "brist" eta "brast" eman ziren sekulako jatekoak eta edatekoak! Eta ez ziren jende hek guti hafitu!

Berehala, dafail hura bertze hala halako batean trukaturik, ichil ichila, atseginez chochotuak, joan ziren gero ohera.

Biharamunean, ostatutik ufundu zeneko, gose bere gose zan gure mutila eta, arbolape baten zabaldu eban zamaua esanez: "Zamau, zabal adi!". Baña, esan eta esan ak ekin afen, sasizamaua utsik gelditu zan, eta gure mutila, biotz-minez tentelduta, etxera bigurtu zan, zoririk egin baga.

卐 卐 卐

Andik lastef, bigafen semeak ba-diñotso amari: "Ama, egizuz opilak aida baten, zoria egiten berlan joan naitean".

Egiten dituz amak opilak, eta semea ba-doa bidez-bide.

Ur-baztef berean, aufkituten dituz arek bere, Josu Jauna eta Kepa Deuna.

Josu Jaunak dei egiten dautso: "Esaik, mutil; sariaren truke eroango al gozak beste aldera?" —"Bai, beintzat!" Eta mutilak eroan egin zituzan beste aldera.

Jesus Jaunak, orduan, emoten dautso saritzat "asto" bat, esanez: "Eutsok; artu egik asto au. Diru-bearean aiteken bakotxean, esan egiok asto oneri: "Lanean, ene astoa!", eta asto ofek, beingoan, ufea egingo doa pafa-pafa.

Gure mutila, zoria egin ebala-ta pozafen, berealaxe abiatzen da etxerantz.

Afatsean, elduten da a bere, anaye zafena joaniko ostatura, eta oera orduan, emoten dautse astoa gordeteko, esanez: "Asto, oneri ez gero, afen, "Lanean, ene astoa!" esan" —Ezetz, ezelan bere.

Baña, mutila oera joan zaneko, ostatariak ba-diñotse astoari: "Lanean, ene astoa!" Eta, beingoan, asten yake astoa, pafa-pafa, ufea egin eta egin. Eta ez ziran lagun aek gitxi afitu!

Beingoan a astoa beste antz-antzeko bategaz trukaten dautse, eta gero, isil-isilik, ba-doaz oera.

Biaramonean, ostatutik ufundu zaneko, esaten dautso gure mutilak astoari: "Lanean, ene astoa!". Baña—eta zeuek parkatu—"beste atarikoa" egin eutsan astoak pafa-pafa. Eta gure mutila, zoririk ez ebala egin-eta, tentelduta bigurtu zan etxera.

卐 卐 卐

Andik lastef, irugafen semeak ba-diñotso amari: "Ama, egizuz opilak aida baten neu joan naitean zoria egiten".

Egiten dituz amak opilak, eta ba-doa semea bdez-bide.

Beti ur-baztef bereatan, aufkituten dituz, arek bere, Josu Jauna eta Kepa Deuna.

Josu Jaunak alan eskaturik, eroan egin zituzan biak beste aldera, eta Josu Jaunak, saritzat, "makila" bat emon eutsan, esanez: "Eguno inon areriorik urten baldin ba'daik, esan egiok makila oneri: "Zapla, Maria, zapla!", eta ikusiko dok ikustekoa.

Aguf eta mila eskef, afatserako elduten da mutila bere anaye biak kapustu izaniko ostatu atara bertara.

Oerakoan, esaten dautse ostatarieri: "Gorde egidazue, afen, makila au biaf goizerarte. Baña, zeuen onerako, ez egikeozue gero "Zapla, Maria, zapla" esan". —"Ezetz, ezelan bere".

Baña, mutila oera joan zaneko, ostatariak, makilea afturik, ba-diñotse "Zapla, Maria, zapla!".

A! Bai, e? Makilea asten yake berpertan, kiski, kaska, zirt eta zart, laguneri eta gauzari zartadaka, guztiak zeatu beafez! "Ai! emendik, "oi!" andik, asten dira ostatariak! Eta makileari iñondik inora ezin gelditu erazo! Jo eta jo, ak ekin beti!

Azkenean, zafapafa aregaz (iratzaftuta jagiten da gure mutila, eta ostatariak, zoratu eginean, asten yakoz aldafika: "Afen, afen, gelditu eragiozu makileari, eta "Zamau, zabal adi" eta "Lanean, ene astoa", guztiak emongo dautsuguz atzera.

Gure mutilak, "Geldi, Maria, geldi" esanik, gelditu erazo eutsan makileari; eta "Lanean Astoa,'ren ganean, eta "Zamau, zabal adi" besapean eta "Zapla Maria, zapla" eskuan zituzala, etxera bigurtu zan.

Eta bere amagaz eta anaye biakaz, aberats bizi izan zan, Jaingoikuak daki noiz afte luzaroan.

Ondo bizi izan ba'ziran, era beratan il ziran.

GAŃO'TAŃ BERNARTA M.
Bizkayeratzalea

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irun'en, Ilno. 313'an.)
2.000 "Leghoru"-oluak afantza-iminliak zenbatzeko abijakaz. Txiñak atarateko afautzak saltzia. Olaskotxu javopatijak. Iru ilabeteko olandatxubak.

Etorkunde osteko XIII igandia

SAŃTUNA. (73'g. Er.). Gogoratu, Jaun ofek, eure ifunia, ta eure landefakaz ezaike betiko aztu; erdu, Jaun ori, eure auzija aldeztuten; entzun egixak eugana joten dabenen eskarijak.

(73'g. Er.). ¿Zegatik betiko egotzi gozak, Jaungo ofek? zegatik eure lafeko ardijoi asafe-sumindu egin akijoe?

Aintza... Gogoratu, Jaun ofek...

OTOYAN. Betiko Urtzi algustidun ori: ziñesmena, itxaromena ta goimafasuna getu egiskuzuz; eta zuk abinduba jadetsi daikeguntzat, zeuk aginduba mafe daigula egixu. Amaibako egunetan zeu ta Goteuna 'rekin bat: bakaldun bixi dan zeure Seme Josu-Kisto gure Jauna dala bide.

IDAZKIJA. (Paul Beldu deunak galatijafai egin dafako Idazkiko irakufgaya (3, 16-22).

Anayok: Abintzak Abafan'i egin yakazan, eta aten jatofijari. Eta "jatofikua, eztiño, askiai bai'litxan; "eta ire jatofijari" baño, edo bateri, Kisto'ri. Ona, ba, nik diñodana: Jaungoikua'k sendetsiri o ifunia, lareian eta iruramaf urte geruago softuriko lagijak eztaula indafgetu, ta abintza ezeztu. Jarauntzija lagiik etoftekotan, abintzatik ezin etofi. Abafan'i, baña, abindu egin leutsan Jaungoikua'k. Ofezkero, lagija zetarako zan? Txafkerijak zirala-ta, ipiñi zan, abintzako jatofija etofi-afteño, ta gotzonak zabaldu leben (Mois) bitafekuaren eskuz. Baten bitafekorik, bafizeztago; eta Jaungoikua bat bakafa da. ¿Ofezkero, lagija Jaungo-abintzaen kaltez dala? Ez, beintzat. Bixija emon legikian lagija zabaldu ba'litz, bai, zindokuntzea lagiik letofkian. Idaztijak, baña, obenpian itxi leban dana, ziñestunetan abintzea Josu-Kisto'ri ziñestez betatu ledintzat.

MALAGUNTZA. (73'g. Er.. Gogoratu, Jaun ofek, eure ifunia, ta eure landafakaz ezaike betiko aztu. I. Erdu, Jaun ori, eure auzija aldeztuten; eure otseñak jasaniko irañakaz gomuta adi.

Aleluya, aleluya. (89'g. Er.). Jaun ori, gure babesa ixan az belaunik-belaun. Aleluya.

GOIZPAŃKIJA. Luka deunaren arauzko Goizpaf-jafaikuna (17, 11-19).

Aldi aretan: Josu Jerusalen'era bidez Samari ta Galilai-ziaf lebilan. Eta aldauri ezeinbatera saftzerakuan, amaf gixon legenafduni aufez-aufe, egin yaken; eta areik, ufuntxu lotuta, didaf-egin leutsoen, "Josu irakasle, efuki-akigu", esanaz. Josu'k, ikusi leuzalarik, "Zuaze, ta jauparijai aufkeztu", esan leutsen. Eta ara, luazanaftian (joyazanaftian) txautu egin ziran. Euretariko batek, txautu egin zala eguaftuki, atzera egin leban aldaf.ka ta Urtzi'ri goraka; eta Josu'ren oñetara auzpeztu zan eskafikaskoka; eta berau, ain zuzen be, samarifafa zan. Arian, Josu'k, ijardetsiz, "¿Eztira, ba, amafak sendatu?", esan leban. "¿Nun dira, ba, beste bederatzijak?

Atzefifaf au baño ezta etofi Urtzi aintzalduten". Eta gero berari: "Zutundu, ta uake; eure ziñesmenak txautu au".

OPAKUNDIA (30'g. Er.). Jauna: eugaz itxaro naz; eu az, esan leudan, nire Jabe Jauna; eure eskutan dago nire aduba.

OTOI IXILA. Jaunoi: adikof zakijoz zure efi oni, adeibera bere oparijoi; eta oparijokaz ibifarik, obenak azketsi ta eskarijak bayetsi eiskeguzuz. Amaibako...

JAUNAŃTZAKUA. (Jak., 16, 20). Goiko ogija emon dauskuk, Jaun ofek; eztifasun eta gozotasun oro daun ogija, gero.

JAUNAŃTZOSTEKUA. Jaun ori: goiko eskutukijok aftu doguzanezkero, betiko jareikuntzarako bidez aufera dagikegula deskatzugu. Amaibako...

卐 卐 卐

ERABAKIJAK. Ziñesmena, itxaromena ta goimafasuna dodaz onoimenik biafezkuenak. Onoimenok neure goguan senduagotuteko, alegiñak-alegin dagikedaz.

Eta ugatzau nindubenian ixuri leustazalako, Goiko Jaunari eskafik asko egingo dautsat egunian-egunian.

ATAŃIZBAŃNA.

ERRIJETATIK

GALDAKANO

¿UDALETXIAN OSTU?—Lengo egun baten, gabaz ixan biaf, udal-etxera lapufak saftu ziran da, eure adizkide dogun Arantzeta'taf Eukenik gordeta eukazan txindijak uxatu yakotzan. Beraz, udala eztabe ostu, lengo tokijan dago ba-ta, baña Arantzeta'ren txindijak ez, onek ziran ba ostutakuak Lapufa'ren txindi-egafija asetzeko lain etzan-ixango, lapufetak auferantza be ixango dirala uste dogu, aspaldi onetako eran jafaiku biaf ba'dogu, lanik ezaz, zertara jokatu eztakigula gagoz-da.

GASTETXUBEN POZKAŃI.—Entzun doguna egija ba'da, poza ta atsegiña ixan biaf dau gure gastetxuben aftian. Gorulari ta ezpatadantzari aldrak jafiko-dirala entzun dogu ta zijuntasun pizka bat ikusten asi-gara, gastetxubak urduri dabiltz aldi-gitxiz onantz. Orixe da biderik egokijena geure Abefija'ren ezaugafijak efijari irakasteko ta bide-batez gastetxuben poza, gurasuen atsegiña ta euzko-agindarijen zabalgunderako bidia.

Ofetzatz dagikegun alegiña gitxi ixango da, batek edo bik egiteko, baña biaftuta gagozan gustijoen laguntasuna edo berotasuna biaf-biafekuak doguz ta irakasten alegintsen diranai ez-da utzagun geure laguntasuna ukatu.

Euzkadi'ren azkatasuna loftzeko lotan ez dogu jafatu biaf, bagijak-zabal ta alegiñak-alegin eginda baf o.

LAŃINAGA ESPETXEKOAI.—Zuben gomuta bixi-bixija dogu, batez bere efi onetakuak zarijenoenak. Nire aufeko idazkaya EUZKADI'ra bidaldu nebanian bijotzetiko agufa zuzendu biaf neuntzuben Lafinaga-kayolan zagozen abefi-txori-biz kofoi, baña, emengo kaitatafa dan Mendia'taf Dorota'ri idazki agirija zuzendu neuntzan ta luze-zamaf urten euztan-lez tokirik ezagatik oraingoiko itxi-neban.

"UPO-MENDI,'RA.—Euzko-Gastedija 'n ikusi dogu iragafki bat Galdakano'ko Euzko-Gastetxu-Batza'kualde ila onen lenengo igandian Upo-mendira doazala goeko zortziretako jaupia (ni esia) entzun-da.

Egun ofetan ba, alafasuna ixango da euren aftian.

Mendijan igaroko dabe eguna ta gaberako euraen etxietan gustasuen onduan ixango da edestu-biafa, etzeratu dafezanian.

Bat baño geyago, biaf ba'da, lotara juateko gertuago ixango da gertaerak ezateko baño.

Upo'ra juan-etofija eginda oea'ren apaztasuna ondo etofiko jako nire semetxubari, ama batek baño geyagok ezango dau egun ofetan.

ZUŃUMUŃA.—Ufen datoian auteskundietan emengo "margariñuak" gure gane'tik jafi biaf ei dabe.

—Ori jaso-leikela abeftzaliak lo ba'dagoz auteskunde aufian.

—"Margariña,'ren batzokija "Sírculo tradicionalista" dalazkua erakutsi nai-dabe baña "traicionalista" obeto legokela entzun dogu.

—"Margariña,'k ezin dabezala "emakume abeftzaliak" ikusi ta guda edo gefa andija egifen dautsoela.

—Basefifafak ipinten dabezan "txori ma luak" (espanta pfjaros antzekuak dirala "margariñak" be, ta "Emakume Abeftzale-Batza" nai jeltzaliak ugarifu baño eztirala egifen.

—Ta ufenguan beste gauza batzuk, gogoratzen ba'gara...

LAŃABEDARRA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

LASARTE

ZALDI LASTERKETAK.—Lenbizi 7 eguneko egifaraua iragafi afen geruago bost geigo erantzi dituzte.

Amabi lasteŕketa-egunak abexek dira: Dagonila'ren 6'g. (Igandea), 13'g. (Igandea), 20'g. (Igandea), 27'g. (Igandea), Agofa'ren 3'gn. (Igandea), 9'g. (Larunbata), 16'g. (Larunbata), 23'g. (Larunbata), Ufila'ren 1'goa (Igandea), 8'g. (Igandea), 15'g. (Igandea) ta 22'g. (Igandea.

ASTEKO ATSEDEN-EGUNA.—Efiko gauzai ta aguzilak auferantzean asteko atseden-eguna izango dute.

Aguazilak beintzat urte asko egin difu jairik gabe; beraz emengo ziñegotzi abeftzaleak egindako eskaeraz Udalak aftu diran erabagia zuzena dala ezin ukatu.

OLA BEŃIA.—Fonografo-plakak egiteafen Saon garagex izandakoan beaf diran tramankuluak jafi dira.

Ola befi onetan gizon-emakumezko ogei langile inguru bearko dira

GASTETXUEN JAYA.—Lasarte-Oria 'ko Euzko-Gastetxu-Batza'ren askundea ospatzeafen Agofa'ren 10'gafenian jai abefkoyak izango ditugu.

Egitaraua osatzen danean berofen befi emango degu. A-BI.

MAÑARIA

LENENGO BARIKUBAN.—Seferdijetako mezan, Josu'ren Bijotz gozoaren aintzaz, Jaunartziak eta otoitzak egin ziran Aintza ta omena Berari!

BA-DABILTZ...— Gure arerijuak ba-dabiltz... Euren bijotzetan gutzat daukien bekaitz-amofua edefto agertu dabe. Len, gertauta geunkan jai-abefkoya gebendu euskuben; eta orain, geure Batzokija giltz petu dauskube. Eta... egiñikoak gitxi bai-ditzan U. B. B.'ko lendakarijari, bosteun laufkekoen galena ezafi dautsoe, ta batzokizañari be befeun eta befogetamar laufkekoena.

¿Zer dala-ta ixun ofek baña? Egunontan darabilgun ifaun berezija orixe da. ¡Ori dok amofua! Ori dok txindi-gosia...! ¡Ene, ene, zelakoak esango neukezan...!

Gure afetik abeftzaletasuna kenduko dozu be la kuan bazagoze, ¡extgoze mutil txafak! Ostera be egon biafko dozube... Pentzetia be! Orañafte iñok loftu al izan eztauna, zebek loftuko ete dozube ba...? Ez ta ez. Gu euzko abeftzaliak ixatia Jaungoikuak gura daulako. Beraz, alpef-alpefik alegindukoarie.

IÑAKI DEUNEZ.—Geure zaindari andijaren aintzaz goxian Jaunartze asko egin zan. Eta amafetako mezan, gure txaunburu jaunak, Iñaki deuna'ren bixitza edefto azaldu euskun; eta guk poz-pozik entzun be.

Afatsaldian, Bilbao'n ospatu zan jai-abefkoi edefera, emetik be lagun asko juan zan. Ikusgafija ixan zala esan eben.

JUAN-ETOŃIJAK. — Galdakano'ra juan zan Untzalu'taf Efosale neskatil abeftzalia.

—Bermeo'tik etofi zan alditxu bat igaroten Ibafa'taf Margariñe neskatua.

—Egubaztenian egon zan emen Untzalu 'taf Miren anderea, Arefio'ren alarguna.

—Egunontan emen aurkitzen dira Axpe taf Garbiñe ta Sope, Otxandiano'ko neskatilatxubak. Oneik bai dirala benetako abeftzaliak! Erderakadatxu bat be, ondiño eztautzogu entzun; eta Jel-abesti gozoak abestuten diñardobe beti. ¡Ori, ori, neskatuak!

EGUN EDEŃA.—Igandian, Elgoibar'en ospatu zan euzkel-dazlian batzafera juan gintzazan. Eta bertan, anafasun gozoan berebixiko egun edefa igaro geban. Danok gengozan poz-pozik. "Abefi" zintzoa be, bafia ezpanian ebala, poz-pozik ebilan. ¿Zelan ez? Ainbeste anai-afeba mafe bere inguruan ikusi ezkeroan?

Zorijonak bafiro be "Abefi", igandeko omenaldijagafik, olako baten gai ixan zara. Bafa zorijonak "Mirentxu" begikuori be, omenaldi ori egifeko asmua, lenengo zeuk agertu zendubalako, ta igandian idazliontzat gertau zendun bazkari edefagatik. ¡Axe bazkarija! "Atza bust: ta abora".

"LAUAXETA" JAUNA'RI.—Jaurlarijak ixuna ezafiko daustan usterik ez ixan "Lauaxeta". Jaufiaritxu oferi (onantza datofenian) Anboto'ko damiak eta nik "omenaje" entzutetsu bat egifeko asmua dogu ta. Antxiña be, ba Anboto'ko sorgin-andereak, gixon bateri, aitz-galufian sekulako "omenajia" egin ei-eutson... Eta, omenaldi ori zala-ta, arkaitz oferi "Anbota" ixena ezafi ei-eutsoen. Uste dogu ba, gugaz ain ondo "portetan" dan gixonak, alako omen bat meresi dabela.

Emeko lamiñak diñue ostera, ufegofiz josifa dagozan afen be, gixontxu oferi ezertxo be eztautzoela emongo; lenago euren ufe gustijak eguzkitan uftu ta axetan zabalduko difubezala. Beraz... omenajia bai, baña txindirik ez...

ABADIANO'RA—Ilonen 6'gn., Abadiano efi begikuan ospatuko dan Gastetxuben jaira (J. L.) lagun askotxo juango gara. Bertan gauza edefak egifeko dira-ta.

MAÑARIKO.

ZEANURI

¡ATZERATU DA!—Ila onen 13'rako, Batzoki eta E. A.-B.'ren askundija, ixentauta egon da, baña, egun ofetarako egin ezin leikiezan gauza batzuk agertu dirala ta, atzeratu biafa ixan da. Tamalgafija

Egun ofetan ezin leikiela ta, egutegija ezkubetaratuten dogu eta ofi'rik-ofi datofen ilaren 17'rafegiño joan gara. Gertakixunak aufera juango-dira, bada apuf bat bazteftuten badira orain legez, jazoko jaku

Baña U.-B.-B.'k efiko jayetarako batzokiko atiak idigifa euki gura dabezala ta, 13'an itzaldi eta antzefti edef batzuk ixango dira. Toki ofen onespena eta Emakume Abeftzale-Batza askundia ixan ez afen Efiko jayetan juan gura daben gustiventzat atiak zabal-zabalik egongo dira. Gertau bada danok datofen igandian batzokijan ixango diran itzaldija entzun eta bafegafikerijak ikusteko.

Eta bafa zabaldu Euzkadi gustifik, 13 'rako ixentauta euki doguzan jayak, datofen ilaren 17'rafte atzeratu direla, danok alkaftuta egun ofetan jai aundi batzuk egin daiguzan.

IÑAKI DEUNA.—Poz-pozik etofi giñan igaro dan astelenean Bilbao'ko kirol-tokijan ikusi gendubezan jai aundijetatik. 2.500 ezpatadantzari batera eta beste 1.000 gorulari ikusi; 165, 144 eta 125 kilo'ko afi jak altzeteagafik afifu, ariñeketa, palanka-jaurti eta ainbat santzoren ondoren euzko-jolas ugarijak poz-pozik amafu eta ufenguan juateko itxaropenagaz gelditu giñan. Jai aundijau afatsaldean eta goxean Begoñeko txadonan?

"BASEFITAŃ BAT,'ERI.—Gefu gagoz geure lanetan jafafuteko, baña batzubetan beste lan biaftzubeguak agertu ezkero barau be egin biaf. Sugar afua edo egon bazan eztakit, baña "Atzelari,'k be bixi dala astaftan esan euskun.

Nik asi neban bidiari jafafuko dau amaira elduko banaz eztakit.

AŃEGITAŃ BAT.

ONDARROA

BEŃIATUA'RA. — Ikusirik datofen igandean dala Beñiatua'ko uritxuban Euzko-Gastediaren zabalkundia gaf aundi dago emen jai ofetara juateko. Nai dabenak juan goxetik, Mendigoxaliak urten dabe goxeko zortziretan gure Batzokitik.

Abeftzalia'k gaste eta zaf, igandian danok Beñiatua'ra (1).

Gauf Beñiatua'n egifeko ixan diran euzko-jayak, beñoda Soria'tik Bizkaira zan Sevilla'k, gebendu-egin dauz. Beraz gauf, irakufle, Beñiatu'ra ezin juan gabekez. ¡Au tamala!

DURANGO

ABADIANO'RA.— Abadiano'ko abeftzaliak ez-dira geldirik egotekuak. Jai ondo bidez edefto dakije zabalkundia egiten. Orain, Gastetxu-Batza'ren askundia dabe-ta, iragafi dabezan jayak jai begi-beran ta edefto antolatutakuak dira gero. ¡Abeftil onak dira ba onetan Abadiano'ko abeftzalidiak!

Datofen igandian egingo diran jai ederoneik ikustera ta an ixango diran itxaro txubari entzutera juaten biaftuta gaude. Durango'ko abeftzale gustijak, bai emakume zein gixonezko. Beraz igandian gustijok Abadiano'ra.

JUAN-ETOŃIJAK.— Mexiko'tik etofi da Arozena'taf Todof.

Aldi luzerako itxasoratu da Zurkaran 'taf Pantzeska mutil gaste ta gure batzokiko antzeslari trebia.

Satufaran'era juan dira: Urigüen'taf Gotzon, Azpitarte'taf Joseba, Astigarraga 'taf Andoni, Agife'taf Joseba, Mendiola 'daf Juli, Afieta'taf Augustin, Untzilla'taf Topil, Rodriguez Mañarikua'taf Koldobika ta Safiortuzar'taf Efikafta, abade-gayak.

ARALAR'ERA.—Auferagoko idazkijetan iragaften neban legez, il-onen 20'gafenian egingo da txango bat Aralaf mendira. Txango au bilbaotafakaz batian egingo da ta goyan daguan Mikel deunaren txadonan batuko gara Nabafa, Araba, Gipuzkoa ta Bizkaya'ko abeftzale asko, gure zaindari deuna gufu ta berari laguntzea ezkatuteko.

Txaftelan saneufijak: sei laufleko kantapuan eta bederatzi bafuan, dira, ta bertora juateko ustia daukanak emon beharbere ixena gure batzokijan.

IBAIZABAL.

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Zaribay 13 bis. 2.° - DONOSTIA

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Zaragoza, 10 DONOSTIA
ARIETA BITXIZALEA
Eitxitegia-Zillartegia-Cebeukazlegia
BITXIAK EGIN ETA BERRITZEN DITU
Urrutizkiña, 13.777

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

El mejor jabón para el lavado de la ropa. Tiene abundante espuma y mucha duración
"BILORE"
Zoñekoak garbitzeko jaboi-rik onena. Bitxa ugara dauka ta iraupen aundiagoa.

Deunen bixitza

Jaunaren Irudibiakundia

Kistafok geure siñesmen eta itxaromenean sendotzeko berebizikoa dan jai au, boskafen mendera ezkero ospatu zan Efoma'n eta sortaldeko efietan lenago be bai Gure Jaunak afokeria gofoto eban eta apaltasuna maite. Biotzez otzan eta apala nazan onegandik ikasi egizue esan euskun Jauna, bere bizitza osoan apal be apal agertu zan, gizasemerik lander eta txiroena baizen apal. Ofaitik be Jangoiko zala adierazoaz bere ikaslak siñesmenean sendoagotzeko, alatz edo mirari afigafiak egin ebazan Jaunak ainbat bidaf.

Jordan-ibayak bere ugayotza daukan Kaisarai aldera egindako ostera baten, Jauna bere ikaslakandik aldendu ta bakarte gira joan zan otoitz egiteko, oitura ebanez. Gero ikaslakana itzulirik itandu eutsen: (Gizaseme onetzaz zer diñoe gizonak? ¿Nor nazala diñoe? Ikaslak erantzun eutsoen: Batzuk Jon Ugutzalea, beste batzuk Eli, besteak Jeremi edo igarleetarikoen bat zareala diñoe. ¿Eta zuek nor nazala uste dozue?—itandu eutsen Jaunak. Orduan Simon Kepa, odol berokoak, aufenengo itz-egiñik, erantzun eban: Zu Kisto, Jangoiko biziaren semea zara.

Eta Jaunak diñotso: Zorionekoa zu Simon, Jon'en Semea: erantzun dozun ori eztautzu, ba, aragi ta odolak iragafi neure Aita Goikoak baño. Eta nik diñotzut: Zu Kepa edo Atxa zara: neure Eleizea aitz onen gañean eregiko dot eta bafendiko indafak ezingo dabe eratsi. Zeruko giltzak zuri emongo dautzudaz, eta zuk lufean lotu dagizuna, zeruan be lotua, eta zuk lufean askatu dagizuna, zeruan be azkatua izango da. Eta Bera Kisto zanik iñori be ez esateko agindu eutsen ikaslai.

Gero Jerosolima'ko zar, lege-gizon eta abade nagusiak, aferazoko eutsoezan lotsari, nekauste ta eriotzea adierazo ondoren, irugafen egunean berbiztuko zala be iragafi ta esan eutsen Jaunak bere ikaslai. Jaunaren nekauste ta eriotzea txafto jausi yakozan Simon Kepa'ri, ta Jauna eriotzatik aldendu nairik, izketan asi zan; baña Jaunak agiraka egin eutsan eta ikasle guztiei esan eutsen: Norbaitek nire jafai etofi nai ba-dau, bere burua ukatu ta bere gurutzea leporatu begi ta jafaitu beist. Iragafitako nekauste ori ikaslak lotsatu, ikaratu ta makaltzeko lagin ba-zala-ta, aen siñesmena sendoagotzeafen, Bera Jangoiko zala argiro iragafi nai izan eutsen Jaunak, esanaz: emen dagozan eta nantzuen batzuk. Gizaseme au andizurenez, deduz eta aintzaz beterik ikusi afte, eztira ilgo.

Esan eta egin, sei egun geroago bere ikaslerik maitienak, Kepa Jagoba ta Jon, aren anaya, beragaz alde batera artu ta mendi goi batera, Tabor mendira, daroaz Jaunak. Eta Tabor mendian otoizketan bero-bero ziarduala, antzaldatu egin zan Jauna. Bere arpegia eguzkia baizen argi ta bere soñekoak edufa baizen zuri biurtu ziran: gorputz guztia apain, dirdiratsu, edef eta argi ¡ikuskizun bikañagorik ezin ikusi!

Aitaturiko iru ikaslok ikusle zirala antzaldatu zan Jauna; baña etzan Bera bakafik agertu, lagunekin baño. Mois eta Eli, Legezafaren irakasle ta igarle... sia be Jaunaren albo bietan, eta Jauna... izketan agertu ziran. Andik lastef... solima'n Jaunak jasango eban Nekaziarduela diñosku Luka deunak, Kepa... onen lagun biak lo egozala be ba... baña konorgetuta egozala uste dau... toma daunak. Zana zala, lastef etzan... konortera etofi ziran ikaslok eta Jauna... arpegi ta gorputza, irudiz aldatua... edef eta argi ikusirik, afitu ta... ziran eta agoa zabalik egozan eure... ari begira. Orduan Simon Kepa'k, ... aufea arturik eta zer esaten eban ez... ela, diñotso Jaunari: ¡Auxe bai... edefa! ¡au egotoki atsegiña! Emen... baño obeto geugokaz, Jauna. Nai bada... egin daiguzan ementxe iru etxolatzat bat, Mois'entzat bat eta Eli'entzat beste bat. Kepa'k ori ziñoan bitartean... Jauna ta bere lagunak odai argitsu... inguratu ta estaldu ebazan, eta odai... tik mirarizko abots batek ziñoan: Abotsayatan nire seme kutuna, auxe da... egiozue. Abots ori entzunaz, ikaslak... atu egin ziran eta auzpaz lufera... Orduan Josu uferatu yaken eta ikusi... zan, esanaz: Jagi zaiteze ta ez bildur... Begiak gora jaso ebezan ikaslak... Josu baño besterik ez eben ikusi... mendian bera etozala, esan eutsen Jauna... Ikusi dozuen ikuskizun ori ez egin... iñori esan, Gizasemea ilen artetik... dan arte. Ikaslen siñismena alatzen... sendotu eban Jaunak bein baño gaiz... irudiz aldatze au be ofetarakoxe izan... esan geike; baña ain beafa dogun agafe... itzez eta egitez guri irakastearen, zatoz... eukala be bere burua apaletsi nai... Jaunak, eta ikasten begietan ain onen... aintza andia emon eutsan Irudibidea... au zabaltzea be galerazo egin eutsen... lai, auferago Bera Kisto zala esaten... tea galerazo eutsen lez. Ilen artetik... biztu afte aintza ta andizurenik ez... nai, laido ta lotsariak baño, neke, ... ta eriotzearen bidez gizaseme guztien... sun eta zori ona egiteko.

Jaunaren antzaldatze au benetan... gafia izan zan Kepa ta onen lagunentzat. Bakartegira joan zan Jauna ta antzaldatu... eben Mois'ek eta Eli'k Jaunagaz itz egiteko zoriona: otoitzen ziarduala antzaldatu... ta goiko edefez jantzi zan Jauna... eskaf eta mesedeak otoiz-aldian emoten... dauskuzala adierazteko. Juunak bere aintzazen izpi bat erakutsiaz, zeruan bere... tzat daukan aintza andi ta edefa iragafi... eutsen ikaslai. Lentxuago gurutzea... tera dei-egin eutsen, eta orain ofetarako... bearf dabezan adore ta kemena emoten... dautsez, gurutzea gogoz daroenak bakarrik... onetan be atsegiñak ixango dabezala... akutsiaz. Tabar-mendian Jaunaren aintza... zoragafia ikusi eben ikaslak ¿zeinek... izan ziran? Ain zuzen be, Getsemaniko... baratzan, bere eriotz aufeko lafiasun... diak ikusteko, Jaunak autu ebazan... ikasle maiteenak. Paul biali deunak... ñoana, ofegaz batera dago: Jaunari... neke ta lotsarietan lagun izan ba-gaitzan... aintza ta goraldietan be izango gaitzan.

EJTAR J.

---

rijak ixuna ezafiko daustan usterik ez ixan "Lauaxeta". Jaufiaritxu oferi (onantza datofenian) Anboto'ko damiak eta nik "omenaje" entzutetsu bat egifeko asmua dogu ta. Antxiña be, ba Anboto'ko sorgin-andereak, gixon bateri, aitz-galufian sekulako "omenajia" egin ei-eutson... Eta, omenaldi ori zala-ta, arkaitz oferi "Anbota" ixena ezafi ei-eutsoen. Uste dogu ba, gugaz ain ondo "portetan" dan gixonak, alako omen bat meresi dabela.

Emeko lamiñak diñue ostera, ufegofiz josifa dagozan afen be, gixontxu oferi ezertxo be eztautzoela emongo; lenago euren ufe gustijak eguzkitan uftu ta axetan zabalduko difubezala. Beraz... omenajia bai, baña txindirik ez...

ABADIANO'RA—Ilonen 6'gn., Abadiano efi begikuan ospatuko dan Gastetxuben jaira (J. L.) lagun askotxo juango gara. Bertan gauza edefak egifeko dira-ta.

MAÑARIKO.

ZEANURI

¡ATZERATU DA!—Ila onen 13'rako, Batzoki eta E. A.-B.'ren askundija, ixentauta egon da, baña, egun ofetarako egin ezin leikiezan gauza batzuk agertu dirala ta, atzeratu biafa ixan da. Tamalgafija

Egun ofetan ezin leikiela ta, egutegija ezkubetaratuten dogu eta ofi'rik-ofi datofen ilaren 17'rafegiño joan gara. Gertakixunak aufera juango-dira, bada apuf bat bazteftuten badira orain legez, jazoko jaku

Baña U.-B.-B.'k efiko jayetarako batzokiko atiak idigifa euki gura dabezala ta, 13'an itzaldi eta antzefti edef batzuk ixango dira. Toki ofen onespena eta Emakume Abeftzale-Batza askundia ixan ez afen Efiko jayetan juan gura daben gustiventzat atiak zabal-zabalik egongo dira. Gertau bada danok datofen igandian batzokijan ixango diran itzaldija entzun eta bafegafikerijak ikusteko.

Eta bafa zabaldu Euzkadi gustifik, 13 'rako ixentauta euki doguzan jayak, datofen ilaren 17'rafte atzeratu direla, danok alkaftuta egun ofetan jai aundi batzuk egin daiguzan.

IÑAKI DEUNA.—Poz-pozik etofi giñan igaro dan astelenean Bilbao'ko kirol-tokijan ikusi gendubezan jai aundijetatik. 2.500 ezpatadantzari batera eta beste 1.000 gorulari ikusi; 165, 144 eta 125 kilo'ko afi jak altzeteagafik afifu, ariñeketa, palanka-jaurti eta ainbat santzoren ondoren euzko-jolas ugarijak poz-pozik amafu eta ufenguan juateko itxaropenagaz gelditu giñan. Jai aundijau afatsaldean eta goxean Begoñeko txadonan?

"BASEFITAŃ BAT,'ERI.—Gefu gagoz geure lanetan jafafuteko, baña batzubetan beste lan biaftzubeguak agertu ezkero barau be egin biaf. Sugar afua edo egon bazan eztakit, baña "Atzelari,'k be bixi dala astaftan esan euskun.

Nik asi neban bidiari jafafuko dau amaira elduko banaz eztakit.

AŃEGITAŃ BAT.

ONDARROA

BEŃIATUA'RA. — Ikusirik datofen igandean dala Beñiatua'ko uritxuban Euzko-Gastediaren zabalkundia gaf aundi dago emen jai ofetara juateko. Nai dabenak juan goxetik, Mendigoxaliak urten dabe goxeko zortziretan gure Batzokitik.

Abeftzalia'k gaste eta zaf, igandian danok Beñiatua'ra (1).

Gauf Beñiatua'n egifeko ixan diran euzko-jayak, beñoda Soria'tik Bizk